

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak, Mankomunitateak eta 18 udalek Iruñerriko Hiriko Mugikortasun Plan Iraunkorraren hitzarmena sinatu dute

Estrategiari esker, herritarren bizi-kalitatea hobetu ahalko da, eta ingurumen-eraginak nahiz kontsumo energetikoa murriztu

Osteguna, 2016.eko irailak 22

Nafarroako Gobernuaren, Iruñerriko Mankomunitatearen eta Eskualdeko Hiriko Garraioaren lurralde-eremuan sartutako udalek lankidetzahitzarmena izenpetu dute gaur goizean Iruñerriko Hiriko Mugikortasun Plan Iraunkor bat (PMUSCP) egiteko.

Dokumentuaren izenpetzea Iruñeko Civibox Kondestablen egin da, eta bertan parte hartu dute: Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdik;

Iruñerriko Mankomunitateko lehendakari Aritz Ayesak; eta Eskualdeko Hiriko Garraio zerbitzuan sartutako 18 udalerrietako alkateek.

Iruñerriko (PMUSCP) PMUSen helburua da, Iruñerriko herritarren mugikortasunari eragiten dioten joan-etorrirako moduen nahiz elementuen gainean jarduerako plan integral eta koordinatu bat lortzea; hori guztia, jarduera horiek egingo dituzten administrazio eskudunen artean adostuta. Hala, PMUSCPi esker, herritarren bizi-kalitatea hobetu ahalko da, eta ingurumen-eraginak nahiz kontsumo energetikoa murriztu ahalko dira.

Sinatu ondoren, hitzarmena aurkeztu da, eta bertan esku hartu dute Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manuel Ayerdik, Iruñeko alkate Joseba Asironen eta Iruñerriko Mankomunitateko lehendakari Aritz Ayesak.

Bere agerraldian, Manu Ayerdik hitzarmen hau sinatu duten erakundeen konpromisoa eskertu du, eta haren helburua honako hau da: mugikortasun iraunkorra lortzea eta gora egiten ari den hiriko mugikortasunaren ingurumen-eragina ikuspegi integratu batetik murriztea.

Lehendakariordearentzat, Hiriko Mugikortasun Iraunkorraren Plan bat egin eta onartzea "sinatzaile guztien ordezkariak esku hartuko duten bide bat da, maila teknikoan nahiz politikoan; adostasuna giltzarria izango den



Dokumentua sinatu dute, Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdik; Iruñerriko Mankomunitateko lehendakari Aritz Ayesak; eta Eskualdeko Hiriko Garraio zerbitzuan sartutako 18 udalerrietako alkateek.

bide bat: guztien adostasuna jartzen dugu erronka eta ibilbide-orri gisa", zehaztu du.

Aurreikusitako laguntza teknikoaren finantzaketari dagokionez, Ayerdik adierazi du Nafarroako Gobernuak 'de facto' plana egiteko kostuen % 65 bere gain hartuko duela.

Gainera, Ayerdik gogorarazi du garapen iraunkorra Espezializazio Adimentsuko Estrategiaren lehentasunezko ardatzetako bat dela, Energia Planean berriaz zehaztutakoa. "Gure mix energetikoa aldatzea funtsezkoa iruditzen zaigu, kopuru guztian energia berriztagarrien garrantzia areagotuz eta lehen mailako energia kontsumo guztia murriztuz. Bi kasuetan garraioa funtsezko elementua da (Nafarroan kontsumitzen den energiaren ia % 40aren erantzule), eta ia dena energia erregai fosiletatik dator. Arrazoi hori dela eta, Gobernuak nahi du PMUSEk ahalbidetu dezala mugikortasuna gaur egun nola antolatzen den jakiteko azterketa oso bat egitea, ez soilik alde urbanoa, baita industria eta merkataritzako eremuetarako fluxuak ere, esan du.



Ayerdi lehendakariordeak gogora ekarri du garraioa dela Nafarroan kontsumitzen den energiaren % 40aren erantzule.

Alkateen ordezkartzan, Iruñeko alkate Joseba Asironek adierazi du Iruñerriak aurretik duen erronka garrantzitsuenetariko bat mugikortasun iraunkorra dela. Hiri-garraioa berotegi-efektuko gas-isurketa nagusietako bat da eta, beraz, esan du, "nahi dugun hiri-eredua birpentsatu behar dugu eta mugikortasuneko jarraibide berriak finkatu; hori da gaur sinatu dugun Hiriko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren xedea, Iruñerriko herri nahiz hiriek ingurumenarekin duen konpromisoa islatzen du eta baita hiriguneetako garapenaren harmonizazioarekin ere". Iruñeko alkateak ohartarazi duenez, espazio publikoaren birbanaketari buruz hausnartzeko ordua da hiri erakargarriagoak eta bizigarriagoak eraikitzeko. Hala, "Iruñerriak hiri handi baten moduan funtzionatu behar du mugikortasun eta iraunkortasun arloan; Iruña, Iruñerriko herri eta hiriekin batera, Mankomunitatearen zerbitzura jarriko da elkarrekin hiru ardatz nagusien baitan lan egiteko: oinezkoentzako korridoreak, garraio publikoa eta bizikletak ibiltzeko sareak", Iruñeko Udalan berehala onartuko duten mugikortasuneko ordenantzarri erreferentzia eginez.

Azkenik, Iruñerriko Mankomunitateko lehendakari Aritz Ayesak hitzarmenaren hiru alderdi azpimarratu nahi izan ditu: erakundearen arteko lan komuna, adostasuna eta aurretik duten erronka. Hala, udalekin iragan urtarrilean hasitako lana gogora ekarri du, eta gero Nafarroako Gobernuak gehitu zen ideiak eta proiektuari zentzua emanez. Adostasunari dagokionez, Ayesak Mankomunitateak dinamizatzaile eta koordinatzaile modura betetzen duen zeregina nabarmendu du: lan hori burutzeko eskualdeko erakundeak udal eta gobernuko autonomia kontuan hartuko du. Amaitzeko, gogora ekarri du orain abiaraziko dela proiektu konplexu bat, eta bertan interes askok bat egin behar dutela, eta ez direnak beti osagarriak. "Bizi nahi dugun ingurunea marraztu eta abian jarri nahi duen proiektu batez ari gara, hiriak eta herriak nola izatea nahi dugun definitzen ari gara, eta gure bizi-kalitatean, iraunkortasunean, isurketen murrizketan eta, beraz, klima-aldaketaren ondorioaren murrizketan nola eragingo duten", azaldu du Mankomunitateko lehendakariak.

Hiriko Mugikortasun Plan Iraunkorraren helburuak

Gaur sinatutako hitzarmenaren helburuak dira: existitzen diren plangintza-praktiketan oinarritutako plan estrategikoko modura balioko duen dokumentu bat lortzea, eta integrazio, partaidetza eta ebaluazioko printzipioak kontuan hartuko dituen egungo beharrak asetzeko eta pertsonen nahiz salgaien mugikortasuneko etorkizuneko beharrak asetzeko, Iruñerrian bizi-kalitate handiagoa lortzeko helburuarekin. Gainera, PMUSCPen idazketan partaidetza publikoko prozesu bat egingo da, plana egiteko beharrezko azterketak egingo dira eta neurri batzuk proposatuko dira ondoren administrazio bakoitzak PMUSC ezar dezan beraien eskumenen arabera.

Hitzarmenak Nafarroako Gobernuak, Mankomunitateak eta udalerri partaideek aipatutako PMUSCP

lantzeko dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Hala, Nafarroako Gobernuak eta udalerriek betebeharrak bere gain hartzen dituzte, eta haien artean daude: beharrezko giza baliabideak eta materialak lanen jarraipena egiteko baliatzea, duten informazioa ematea plana egiteko eta partaidetza-prozesuan laguntzea herritarren iritzia, kezka eta ekimenak jasotzeko. Bestalde, Mankomunitateak partaidetza-prozesua zuzentzeko konpromisoa hartzen du, eta PMUSCPen idazketari dagozkion azterketak egiteko.

Iruñerriko Mankomunitateak beharrezko gastuak bere gain hartuko ditu PMUSCP idazteko azterlanak eta lanak egiteko, xede horretarako beharrezkoak diren kontratazioak eginez. Gastu horiek finantzatuko ditu 2015-2016ko Iruñerriko Hiri Garraioaren V. Planaren aldaketan aurreikusitako partidaren kargura.

Lanen jarraipena egiteko eta koordinatzeko, jarraipen eta koordinazioko batzorde bat eratuko da, hitzarmenetik ondorioztatutako betebeharrak betetzen direla zainduko du, eta PMUSCP lantzeko oinarrizko jarraibideak onartuko ditu. Batzorde hori osatuko dute: Iruñerriko Mankomunitateko talde bakoitzeko ordezkari batek eta Nafarroako Gobernuaren Garapen Ekonomikorako Departamentuko Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak. Halaber, lan-plan bat proposatzeko azpibatzerde tekniko bat ezarriko da, PMUSCPen lanketa koordinatuko du eta egin beharreko jarduerak finantzatzeko plan ekonomiko bat jasoko du. Azpibatzerde hori honako hauetako ordezkariak osatuko dute: Iruñeko Udala, gainerako udalerriak, Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernuak.

Jarraipen batzordeak baliozkotu ondoren, PMUSCP udaletako osoko bilkurek, Iruñerriko Mankomunitateko Batzar Nagusiak eta Nafarroako Gobernuak onartu behar dute. Plana bi urteren buruan egingo dela kalkulatu da eta, beraz, 2018 amaierarako amaituta egon daiteke.